

Nik, JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioen funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIAZTATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, Tokiko Gobernu Batzarrek, **2026ko uztailaren 23an**, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

“8.- Norgehiagoka arau bidez banaturiko diru laguntzak, 2026 (Esptea: 2026ZDKO0008)

Alkatearen 2026ko uztailaren 21eko proposamenak honela dio:

“Edurne Soraluze andreak (Udal Kultur Teknikariak eta batzordeko idazkariak) uztailaren 15ean egindako txostenean (CSV zkia: ESKUabb4638d-6c79-41c0-80bf-17c495f40218) honako proposamena egin du:

Espediente zk.:	2026ZDKO0008
Interesduna:	OÑATIKO UDALA
Gaia:	Norgehiagoka arau bidez banaturiko diru laguntzak, 2026.
Sarrera erregistroa:	2026-3727/ 2026-3762

Xedea:

Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 24.1 artikulua xedatutakoari jarraituta, diru laguntza deialdiaren instruktore gisa, 2026ko norgehiagoka arau bidezko diru laguntzen deialdiaren izapidetze administratiboa egitea, interesdunek onuradun izateko baldintzak betetzen dituztela egiaztatzea eta ondorioz A eta B lerroetako diru laguntzen banaketa-proposamena egitea, dagokion organo eskumendunak behin betiko ebazpena eman dezan.

Araudi aplikagarria:

38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Diru-laguntzei buruzkoa.

887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onartzen duena.

Oñatiko Udalak emandako diru laguntzak kudeatzeko ordenantza orokorra (OB 2009/01/29)

Gertakariak:

Lehenengoa.- Aztertuta 2026ko norgehiagoka arau bidezko diru laguntzen espedientea, eta ekainaren 9an egindako kultura batzordean, Kultura Teknikarik, egindako ebaluazio-txostena aurkeztua eta kontuan izanda:

Esleipen-proposamena:

Kultura batzordeak, aho batez, Tokiko Gobernu Batzordeari, ondorengo diru laguntzen esleipen proposamena onar dezala proposatzen dio:

ESKU546eea77-75f2-4f68-ae2f-4784e591c81b

Lehenengoa.- Kultur Teknikariak egindako ebaluazio-txostena ontzat ematea, bai aurre-ebaluazioari, bai egiaztaturiko dokumentazioari eta bai diru laguntzen banaketa proposamenari dagokionez (ikus dokumentuari atxikitzen zaion banaketa proposamen taula).

Bigarrena.- Interesdunek diru laguntzaren onuradun izateko baldintza guztiak betetzen dituztela aitortzea, aurkezturiko eguneratze-dokumentazioa baliozkotzat hartuta.

Hirugarrena.- 2026ko diru laguntzen deialdiaren baitan A eta B lerroetako diru laguntzen banaketa onartzea, expedientean jasotako zenbatekoaren arabera.

A LERROA

Onuraduna	Diru laguntza 2026 (€)	%60 (€)	%40 (€)
Lizargarate	3.339€	2003,4€	1335,6€
GUZTIRA	3.339€		

B LERROA.

Onuraduna	Diruz lagunduko den lana	Diru laguntza 2026	60%	40%
Lizargarate Oñatiko Trikitixa Elkarte	Kantu sorrera eta grabaketa	736,89€	442,13€	294,76€
Burrunba Faktoria kultur Elkarte	Fanzinea	1184,62€	710,77€	473,85€
	GUZTIRA	1921,51€		

Azaldutakoagatik, eta kultura batzordeak aldeko irizpena eman ondoren; nik, Iزار Elorza Arregui, Alkateak, Tokiko Gobernu batzordeari honako hau proposatzen diot:

Lehenengoa.- Interesdunek diru laguntzen ONURADUN izateko eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela aitortzea, aurkezturiko dokumentazioa egiaztatuta eta baliozkotzat hartuta.

Bigarrena.- 2026ko diru laguntzen deialdiaren baitan, A eta B lerroko ONURADUNEN diru laguntzen banaketa onartzea: erabakiaren batera %60 ordainduz eta %40a jaso ahal izateko epe barruan dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dutela adieraziz.

Zuriketak aurkezteko azken eguna: azaroak 20, ostirala.

ONURADUNAK

A LERROA

Onuraduna	Diru laguntza 2026 (€)	%60 (€)	%40 (€)
Lizargarate	3.339€	2003,4€	1335,6€
GUZTIRA	3.339€		

B LERROA.

Onuraduna	Diruz lagunduko den lana	Diru laguntza 2026	60%	40%
Lizargarate Oñatiko Trikitixa Elkartea	Kantu sorrera eta grabaketa	736,89€	442,13€	294,76€
Burrunba Faktoria kultur Elkartea	Fanzinea	1184,62€	710,77€	473,85€
	GUZTIRA	1921,51€		

Hirugarrena.- Argitalpen honek banakako jakinarazpena ordezkatzuko du. Jakinarazpena egiaztat joko da eta lege ondorioak izango ditu ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita. Interesdunek, Oñatiko Udaleko webgunean (<https://www.xn-oati-gga.eus/eu>) kontsultatu ahalko dute ebazpenaren eduki osoa. “

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.“

Ziurtagiri hau dagokion akta onartu baino lehen ematen da, eta ohartarazi geratzen da, 2568/1986 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Toki Erakundearen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duen 206 artikulua arabera.

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2026ZDKO0008-TGB ziurtagiria/JGL certificado (OÑATIKO UDALA)